



## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak batez ere gazteak izango dira, izan ere, hauek dira klimaren egoera larriataz gehien kontzientziatuta daudenak. Egia da, heldu asko ere larrituta daudela, hauetako asko beraien seme-alabek edo hurrengo belaunaldiek bizi izan beharko duten munduarengatik. Baina gazteak beraien dira hemendik urte batzuetara mundu honetan bizitzen jarraituko dutenak eta beraien etorkizunataz beldur izatea normala da, baina baita kezkarria ere, mundu zikin eta kutsatu bat izango dutelako ziurrenik, horrela jarraitzen badugu behintzat. Gazteek beraien buruarentzako eta beren ingurukoentzako etorkizun on eta garbi bat nahi dute, kutsadurarik gabea, eta guk eskainiko dugun zerbitzua hori posible izateko bide paregabea dela adieraziko diegu.

Guk eskeiniko ditugun zerbitzu jasagarriak, zerbitzu ez-jasagarriak baina garestiagoak izango dira, izan ere, oraindik energia berriztagarria lortzea oso garestia da (nahiz eta etorkizun batean diru gutxiago gastatuko dugun energian eta hasieran inbertitutako dirua berreskuratzen joango garen pixkanaka). Horregatik, gure bezeroak prest egon beharko dute diru kantitate handixeagoak ordaintzeko, baina guk momentu oron gogoratuko diegu kausa on batengatik dela eta etorkizunean gu bezalako enpresa asko egongo direla, seguraski.

Bestalde, gure zerbitzuak web orri batean eskainiko ditugu eta orokorrean, gazteen teknologiaren erabilpena helduena baino handiagoa da, hauetako askok ez dutelako mundua teknologiarik gabe ezagutu. Baina, helduen zailtasunak aztertuko ditugu, eta beraiatzat gure web orria sinplea izango da, beraien ere erraz bilatu ditzaten guk eskainiko ditugun zerbitzuak, horrela, errazagoa egingo zaie zerbitzuren bat edo beste erreserbatzea.

Nahiz eta, batez ere gazteengana gerturatuko garen gure zerbitzuen eskaintza egitera, ez ditugu inoiz gainontzekoak ahaztuko, badakigulako klimaren egoera penagarri honek jende gehiago ere larritzen duela. Horregatik, egoera kezkarria honetaz ohartuta daudenei ere egingo diegu eskaera, badakitelako gure zerbitzuek etorkizun batean munduari lagunduko diola. Baina ez hauei bakarrik, egoeraz kontziente ez direnei ere eskainiko dizkiegu, egoeraren larritasunaz ohartzeko eta horren aurrean zerbait egiteko.